



Formakuntza euskaraz!



Euskal Herriko hezkuntzan ardura duten administrazioek euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen dituzte

LABek hezkuntzan dihardugun euskaldunok lan jardun osoa euskaraz egiteko daukagun eskubidea aldarrikatzen du.

Hezkuntza euskalduna, ikas-irakas prozesuetan erabiltzen den hizkuntza eredutik haratago doala argi dugu, barne-biltzen ditu baita ere: ikastetxeko lankideekin ditugun hizkuntza ohiturak; ikastetxeko komunitatea osatzen duten gainerako kideekin euskara erabiltzea eta ikastetxean euskaraz bizi ahal izatea; zeregin burokratikoetarako erabiltzen dugun hizkuntza; Administrazioarekin egin beharreko izapideetan euskara erabiltzea; eta, jasotzen dugun prestakuntza euskaraz izatea, besteak beste.

Hau horrela, LABek gogor salatzen du, Euskal Herriko Hezkuntza eremuaren ardura duten administrazioek sail edota departamentuek langile euskaldunentzako antolaturiko formakuntzak gazteleraz eta frantsesez egitea. Honek, langile euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, ez du bat egiten hezkuntza euskaldunaren normalkuntzarekin.

Horregatik, gure hizkuntza eskubideak defendatzea eta hezkuntza euskaldunaren aldeko jarrera argia izatea dagokigu. Egin dezagun gure lan jardun osoa euskaraz eta salatu ditzagun gure kontrako erasoak.

Horretarako, euskararen behatokian eraso hauek salatzeraz animatu nahi zaituztegu.

Bide telematikoetatik egin dezakezue salaketa: <https://behatokia.eus/eu/>

Bide beretik, hezkuntzako kolektibo guztien euskalduntzean sakontzeko neurrien alde borrokan jarraituko dugu.

Hezkuntza erabat euskaldundu behar dugu. Hizkuntza eredutik formakuntzaraino!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA IRUTEN!